


Lezoko zine agenda

AZAROA

NOVIEMBRE


2004



Gezala

AUDITORIUMA

800
zine ma



EL JURAMENTO

50. hamarkadan kokatutako istorioa. Erretiratzear dagoen Jerry Black (Jack Nicholson) polizia azken kasuaren aurrean aurkituko da. Semea erahil dioten ama bati erruduna aurkituko duela agintzen dio. Hasieran erraza bazirudien ere, ez da horrela gertatzen eta kasuak Black obsesionatuz amaituko du.

Azpian ikus daiteken antzezle taldea luxozkoa da. Sean Penn antzezle bezala ezaguna zaigu eta oraingo honetan zuzendari gisa nola dabilen ikusteko aukera izango dugu.


2001, EEBB 124 min. Sean Penn
Jack Nicholson, Helen Mirren, Robin Wright Penn, Sam Shepard, V. Redgrave.



CIUDADANO KANE

Musulman fedea duen orok Mecara bizitzan gutxienez behin joateko obligazioa omen du. Betebehar hori zinemara trasladatuz, gutxi bada ere, zinea estimatzen duen orok 'Ciudadano Kane' ikusteko obligazioa luke. Zinemaren historiako pelikula hobereenen zerrenda guztietan lehen bosten artean azaltzen da beti. Orson Welles maisuaren maisulana Lezon eta pantaila handian ikusteko parada berri bat! Obligazioak obligazio dira, ez ahaztu!

1941, EEBB 119 min. Orson Welles.
Orson Welles, Joseph Cotten, Dorothy Comingore, Agnes Moorehead.



BALZAC Y LA JOVEN COSTURERA CHINA

Partiduak intelektualtzat dituen bi gazte dira Ma eta Lou. Berreziketa programaren bidez Tibet inguruan dagoen mendi ingurunean kokatutako herrixka batetara bidaltzen dituzte lanera. Han, bertako jostuna eta honen alaba ezagutuko dituzte. Neskak benetako altxor baten berri ematen die: liburuz betetako maleta bat. Hiru gazteen laguntasun eta amodio harremana, eduki eta trasfondo sozial sendo-arekin osatzen da gidoia. Esmatzen ari den Txina erraldoiari buruz dugun informazioa osatzen joateko filme oso interesgarria.

2002, Frantzia, Txina 110 min. Sijie Dai.
Xun Zhou, Kun Chen, Ye Liu, Zhijun Cong.



NI UNO MENOS

Zhang Yimou izango da gaur egun Txinako zuzendaririk ezagunena. Zine soziala eskainiz beste behin ere, haurrak eta eskola gaitzat duen historia geureganatuko dugu oraingoan. Herrixka batean irakaslea ordezkatu beharko du 13 urteko gaztetxo batek. Ikasle guztiak mantentzeko promesa egiten du, baina batek arazo ekonomikoengatik alde egiten du. Haren bila atzetik abiatuko da. 1999ko edizioan Veneziako urrezko maskorra lortu zuen.


1999, Txina 106 min. Zhang Yimou.
Wei Minzhi, Zhang Yuying, Gao Enman, Sun Zhimei, Feng Yuying.



EL MARIDO DE LA PELUQUERA

Antoine umetan ilea moztzen zion emakumeaz maitemindu zen. Heldutan ile-apaintzaileekiko sentimendu berak ditu eta Mathilde ederrarekin ezkontzen da. Hollywoodetik gonbidapen asko jasotako zuzendaria izan da Patrice Leconte. Europako zinemaren defendatzaile sutsua izanik ez du bat bera ere onartu. Historiak kontatzeko modu propioa duen Lecontek Michael Nyman aukeratu du musika jartzeko filme honetan.


1990, Frantzia 82 min. Patrice Leconte.
Jean Rochefort, Anna Galiena, Roland Bertin, Maurice Chevit.



JET LAG

Rose bere azken harremana moztu nahian eta Felix berria hasteko asmoarekin aeroportu batean egiten dute topo. Eguraldia txarra da, kontrolatzaileak greban daude eta ordenagailuak ez dabilta, denbora nahikoa amodioak bereak egiteko. Zinemazale askorentzako Juliette Binoche ikusteko aukerarik ez da galdu behar izaten. Filme honetan ez duzu zinemaren historiara sartuko den ekarpenik ikusiko, baina aspertu ere, ez zara aspertuko.


2002, Frantzia 91 min. Danièle Thompson.
Juliette Binoche, Jean Reno, Sergi López, Karine Belly.



LONE STAR

Sayles uztailean ezagutzeko aukera izan genuen Lezon. Irailean Donostiako zinemaldiko sail ofizialean aurkeztu zuen bere azken lana (oso kritika onekin gainera). Azaroan berririo Lezon ikusteko aukera izango dugu, oraingoan bere filmerik emblematikoenarekin: 'Lone Star'. Boterearen eta gizartearen zirrikutu ilunenak arakatzten trebe(en)a den zuzendari ustelezin honek, oraingoan ere, sorkuntza eta konpromezu soziala izango ditu filmearen oinarri.

1996, EEBB 135 min. John Sayles.
Jemima, Rooper, Marco Williamson, Paul Child, Laura Petela.



21 GRAMOS

Hiru historia ezberdin kontatzen ditu pelikula. Hirurak elkarrekin loturik egongo dira istripu baten ondorioz. González-Iñárrituk aurreko 'Amores perros' pelikulan aplikatutako eskema berbera erabiltzen du oraingoan. Aldatzen dena historiak eta horiek eragiten duten hausnarketa dira: zenbat pisatzen du bizitzak? Heriotzak 21 gramo bakarrik eramaten al ditu berarekin? Mexikoko zuzendari berri eta egun interesgarrienetarikoa 2003ko Veneziako zinemaldian hiru sari eraman zituen.


2003, EEBB 124 min. A. González-Iñárritu.
Sean Penn, Naomi Watts, B. Del Toro, Nick Nichols.



HIRUKIAK 3: ERRAUSKINE / 20.000 LEGOA ITSAS AZPITIK

Jules Verneren "20.000 legoa itsas azpitik" nobelan oinarritutako historia alde batetik, eta "Errauskine" klasikoa bestetik, hiru ahizpatxoak abentura berrietan murgilduko dira beste behin. Cromosoma ekoiztetxeak nobela edo ipuin ezagunetan oinarritutako bilduman azaltzen denetako bat da eskaintza berri hau. Ez ahaztu hain sinpatikoak eta ezagunak egiten ari zaizkigun ahizpatxo hauek oso marrazki atsegin eta erakargarria dutela.

2003, Catalunya 60 min. Hainbat.
Marrazki bizidunak



CHARLIE & LOUISE

Txiki-txikitatiki banatuak izan diren Charlie eta Louis ahizpak dira. Gurasoen banaketaren ondorioz bata aitarekin eta bestea amarekin bizitzera joanak. Bi gazteak Eskoziako udalekuetan egingo dute topo. Esan beharrik ez dago plan oso interesgarria antolatuko dutela... Bavariako Filmen zinemaldian saria nagusia irabazi zuen 1995an.


1994, Alemania 75 min. Joseph Vilsmaier.
Isabelle Carlson, Nikolai Eberth, Bernhard Duebe, Fritz Eichhorn, F. Eichhorn.



BOSTAK (III)

Joan den uztailean gazte abenturazale hauek ezagutzeko parada izan genuen. Azaroako programazioan beste hiru abentura ikusteko aukera eskainiko digute: 'Bostak oso ongi pasatzen dute', 'Bosten abentura berria bat' eta 'Bostak Finniston baserrian'. Bahiketarik altxorrak, engainuak... Bostak gai izango dira guztiei aurre egiteko, hori bai beraien moduan eta estiloa ezagunean.

1996, EB 60 min. Tim Dowd.
Jemima, Rooper, Marco Williamson, Paul Child, Laura Petela.



BI HIRITAKO GERTAKIZUNAK

Frantzian ez ezik, Europa osoan eragin zuen Iraultza Frantziarra du oinarri filme honek. Bertan ingeles zaldun ausart baten historia kontatzen da. Aristokrata baten bizia salbatze arren berea eskaintzen duen heroi batena hain zuzen ere. Marrazki bizidunek aukera ezinhobea ematen dute akziozko istorioak iruditatzeko eta kasu honetan egileek ez dute aukera hori alferrik galtzen.

2000, EB 75 min. Hainbat.
Marrazki bizidunak

eguna/día	ordua/hora	pelikula
OSTEGUNA 4	22:00	EL JURAMENTO
LARUNBATA 6	22:00	EL MARIDO DE LA PELUQUERA
IGANDEA 7	16:30	HIRUKIAK 3: ERRAUSKINE / 20.000 LEGOA ITSAS AZPITIK.
OSTEGUNA 11	22:00	CIUDADANO KANE
LARUNBATA 13	22:00	JET LAG
IGANDEA 14	16:30	CHARLIE & LOUISE
OSTEGUNA 18	22:00	BALZAC Y LA JOVEN COSTURERA CHINA
LARUNBATA 20	22:00	LONE STAR
IGANDEA 21	16:30	BOSTAK (III)
OSTEGUNA 25	22:00	NI UNO MENOS
LARUNBATA 27	22:00	21 GRAMOS
IGANDEA 28	16:30	BI HIRITAKO GERTAKIZUNAK

eguna/día	ordua/hora	pelikula
ASTEARTEA 2	22:00	LA BUENA BODA
ASTEARTEA 9	22:00	CUENTO DE PRIMAVERA
ASTEARTEA 16	22:00	CUENTO DE INVIERNO
ASTEARTEA 23	22:00	CUENTO DE OTOÑO

[illegible]

urria 19 ostirala 22:00 <<<<<<<<<<<<<<<<<

Ametsaren bidez emakume bat jaiotzaren esperientziarekin topatzen da. Honekin bidai bat hasten da haurtzaroko sentimenduen ezagutzan. Izan zen neskatoa heldu kontraesale, iheskorrak eta beharrezkoen kontra borrokatzen du, bere arazoan erreflexua eta mugak.

Aktorea destolestatzen da behin eta berriro hitz egiten dun nes-
kato horrek in harremanetan dauden pertsonaia in bidez. Ama
bezala, aita, auzotarrak, andereño bezala. Bakarriketa da.
Neskato birbizi hau, mitoen, iritzien eta tentsioen ezagun arazten
duten munduaren transmisioa gurasotik semeri zehar bidai bor-
bilsu bat egiten du. Tratatzaren duntan gaiak guztiz gaur egunekoak
dira eta polemika sozialean daude.

urriak 26 ostirala 22:00 <<<<<<<<<<<<<<<<<<

Runbaren sorginkeria. Taldeak hamar urte daramatzate runba doinuak Euskal Herriko txoko guztietara barreiatzen eta lau disko ekotzi dituzte. Hasieratik jorratu dute runba eta ongi baino hobeto menperatzen du taldeak. Estiloa, ordea, zerbait ezberdina eskaintzeko asmotan aukeratu zuten. Runba ongi pasatzeko eta zuzeneko politik egiteko bidea da.

Runbazaleak izateaz gain, koplazaleak ere badira. Izan ere, zuzenekoetan koplak egiten hasten baitira askotan. Hori dela eta, zuzeneko ekimena diskoan ere islatzea otu zitzaien. Horretarako, Jon Maia, Jesus Mari Irazu, Igor Elortza, Maialen Lujanbio eta Unai Iturriagarekin jarri ziren harremanetan diskoan parte har zezaten. Emaita "Mestjiaia" kanta izan da.

KULTUR ARETOA | Donibane kalea

[illegible]

Bakearen alde nabigatzen. Kontakizunaren protagonista Xabier Agote pasaitarra da eta duela gutxi proiektua Bartzelonako Forum 2004 aurkeztua izan da.

Navigating Peace Irlandako Causeway Coast Itsas Ondarea babesteko elkartearen iniziatiba izan zen. Irlandarrak Albaola Pasaiko itsas ondarea defendatzeko elkartea gonbidatu zuten eta elkartek bien artean itsas tradizioa eta gatazka politikoa konmean duten bi herrien elkarlanean proiektua garatu zuten. Ideia Irlanda uharteari bira osoa ematea zen, baina itsas ontzi tradizioaletan: besoen eta haizearen indarra baino ez, arraunean eta belaz, gure arabasek egiten zuten bezala. Ameriketatik traineru euskalduna XVIII mendean arrantzale euskaldunak antxoa eta sardinetara joateko erabiltzen zutenaren kopia da. Ameriketako Euskal etxek finantzatutako trainerua da: 700 kilo inguruko eta hamaika metro eta erdiko.